

# GALTZAGORRI: IKASTARO EGITASMOA

IKASTAROAREN IZENBURUA
<b>Haur eta gazte literatura vs. Literatura</b>
AURKEZPENA.
<p>Literatur sisteman bezala, literaturari buruzko eztabaidetan bigarren mailan geratu ohi da Haur eta Gazte literaturaren gaineko hausnarketa, eta are gehiago gazte literaturarena, bi errealitate literarioen erdian kokatzen denez, sarri status zehazgabea duen literatur esparrua baita. Dena den, izan da euskal literaturan bertan gai hauei buruzko kezka eta eztabaidarik azkenaldian, eta horiek abiapuntu izanda, HGLren eta helduen literaturaren arteko harremanez aritzea da ikastaroaren helburu nagusia, hots, euren artean batzan dituzten ezaugarriez, eta bereizgarri dituztenez. Ikastaroan gaiaren inguruan izan diren teoria eta iritzi nagusiak aurkeztu nahi dira, literatura bakoitzaren ezaugarriak aztertuz, eta literatura bakoitza bere testuinguru sozial eta sistemikoan kokatuz.</p>
HELBURUAK.
<ul style="list-style-type: none"><li>-Haur eta gazte literatura eta helduen literatura aurrez aurre jartzea, hortik abiatuz literaturaren gaineko gogoeta egiteko.</li><li>-HGL eta helduen literaturaren arteko antzekotasun eta diferentziaz jardun duten hurbilpen teoriko desberdinak ezagutaraztea, betiere gogoeta gaurkotua helburu.</li><li>-Literatur sorkuntza (batez ere HGL) bere testuinguru sozialean, eta bere hartzaileekiko harremanetan aztertu eta definitzea.</li><li>-Testuen irakurketaren bidez, elkarrekintza bultzatzea eta teoriaren aplikazio praktikoak bilatzea.</li></ul>
METODOLOGIA.
<p>Ikastaroak bi atal nagusi izango ditu: batetik, atal teorikoa izango da, eta bertan bi generoen arteko definizio eta diferentzia-antzekotasunez hausnartuko da, literatur testuen ezaugarrietatik hasi eta gogoeta sistema literarioaren esparrura zabalduz. Atal praktikoan, berriz, hainbat testu eta libururen gaineko irakurketak proposatu eta bideratuko dira, eztabaida eta interakzioa bultzatuz, lehen atalean azaldurikoaren erakusgarri eta osagarri.</p>
LANDUKO DIREN GAIAK.
<ul style="list-style-type: none"><li>-HGL eta helduen literatura: testu mailako diferentziak</li><li>-HGL eta helduen literatura: ezaugarri paratestualak</li><li>-HGL eta helduen literatura literatur sistemaren testuinguruan</li><li>-HGL eta helduen literatura: ideologiak eta baloreak.</li><li>-HGL-ren harrera kritikoa euskal literatur eremuan.</li></ul>
IRAKASLEAK.
Mikel Ayerbe eta Ibon Egaña (literatur kritikariak)